

Euskararen plangintza

Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (II)

... Hurrengo itauna!

—Bai, gabon!

—Gabon!

—Begara nere itauna hor dauzen guzientzat da. Herria gora eta herria behera ibili zarete ia mahainguru osoan. Nik neuk herriaren parte on bat euskararen alde mobilizatorik ikusten dut; bai eta herri-talde eta -erakunde ugari euskararen defentsarako eragintzatuta eta euskararen berreskurapenerako lanean. Bestalde, badakigu inkesta soziologikoek dioenez, Euskal Herriko jenderik gehien gehiena —Komunitate Autonomoan behintzat— euskara zabaltearen eta berreskuritzearen alde dagoela...

—Galdera, itauna, mesede!

—Bai; badirudi orain, mahainguru horretako batzuren ustez, herri honek ez duela interesik euskaraekin, ez dela euskaraz hitz egiten, edo gero eta guxtiago egiten dela; amets eta proiektu handirik ez dagoela egiteko... Badirudi herriaren gain bota nahi dela orain euskararen normalkuntzarako politika okerraren edo politikarik ezaren erria...

—Itauna, mesede, itauna!

—Berehala doa. Dena dela, hor hitzegin da, bestalde, euskararen plangintzan herriak duen protagonismoaz, herriaren autoeraketaz eta erakunde herritarren koordinazioaz, euskararen berreskurapena lortzeko... Nere itauna da, orduan: Zer da herria zuentzat? Eta nola arlotu behar du herriak euskararen alde? Eskerrik asko!

Herri-mugimenduari buruz ikuspegi ezberdinak eta eritzi ia kontrolatuko agertu dira hemen. Neurea zehazten saiatuko naiz.

Administrazio publikoaren aurrez aurre ulertzen dut nik hemen herria: ez kontra, baina bai etengabeko harreman dialektikoan. Administrazio publikoa, botere politiko-administratiboa duena, batetik, eta herria, bestetik.

Jakina da, herriaren parte handi bat pasibo dagoela euskararen berreskurapenera buruz,

horren kontra ez baldin badago ere, areago, horren alde badago ere, teoriarik behintzat. Bada euskararen kontra dagoenik ere. Baina herriaren parte handi bat dago, euskararen defentsarako eta berreskurapenerako mobilizatorik eta lanean diharduena, benetako militantzia. Indar ederra eta bikaina! Kontuan eduki behar dira kontra dauden sektoreak: kontuan eduki behar dira pasibo dauden sektore handiak ere; baina batez ere aintzat hartu behar dira, euskararen alde borrokatzen direnak eta horren berreskurapenerako lanean dihardutenak. Asko dira horrelakoak gure herrian, eta askoz gehiago izan daitezke, administrazio publikoak politika egokia eraman ez gero, euskararen normalkuntzarako. Horixe da, hasteko, nere ikuspegia.

Nola antolatu behar duen herriak?

Hasteko, zera esan behar da: Herria dela hizkuntzaren jabea; Euskal Herria da euskararen jabea. Horretaz ondo «jabetu» behar du herritar bakoitzak, nor bere erantzukizunaren jabe ere izan dadin. Horren gain, hiru mailatan ikusten dut herriaren antolaketa: mobilizazioa euskararen defentsarako, kolaborazioa euskal kulturagintzarako, eta koordinazioa euskararen plangintzarako.

Herriaren antolaketa talde eta erakunde herritarretan gauzatzen da. Administrazio publikoak sorturiko eta zuzenean nolabait harengandik dauden erakundeetatik bereizten dira haiek, alde batetik; eta bestetik, bereizten dira baita helburuztat irabazbidea edo bizibidea duten «merkatal» erakunde pribatuetatik ere. Erakunde herritarrek ez dute irabazbidea beren helburuztat, eta bai zerbitzu soziala. Sarritan, horien zerbitzua gizarte osoarentzat interesgarria delako, zerbitzu publiko gisa onartzen ditu administrazio publikoak, halako baldintza batzuren pean. Euskalgintzaren eta euskal kulturagintzaren alorrean herri-erakunde ugari



sortu da, bestelako hizkuntza normalduetan enpresa pribatu gisa antolatuko liratekeenak: Ikastolak, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea, zenbait aldzkari, editorialak ere bai, euskararen modernizazioan diharduen zenbait erakunde... Horietako askok zalantzarik gabe ZERBITZU PUBLIKOAREN ezagutza merezi dute.

Horrelako herri-erakundeek buruzko administrazio publikoaren politikak ez dauka hitz handitan gelditzerik; horiekiko politika egokia, besteren artean, laguntza finantzarioan edo subentziotan gauzatzen da. Baina diru-laguntza limosna hutsa bihurtzen denean, iraingarri izateaz gain, etorkizunik gabekoa gertatzen da zerbitzu publikoa betetzen duten erakundeentzat. Bestalde, luzarorako plan batez egingo badute beren lana horrelako erakunde herritarrek, diru-laguntza ez dauka lan-eraguen sistemari oinarritzerik; herri-erakundeek beraien zerbitzu publikoa aitzortzen baldin bazaie, administrazio publikoaren

jokabide egokia ez da subentzio finkoen sistema besterik.

Subentzioen edo diru-laguntzen politikaren azpian kultur politika oso bat aurkitu ohi da, eta funtsean kulturarekiko filosofia jakin bat, nahiz eta gure artean euskararekiko politikak bere espezifikotasuna ere gorde, kultura osoaren barruan; baina ez dago ahazterik marko zabalago hori.

Kulturari buruz, gainerako alor politikoei buruz bezala, bestalde, politika ofizialista eta instituzionalista dago, erakunde handitan oinarritua. Kulturaren ikusgarritasunari begiratzen zaio batez ere, eta horren arabera bultzatzen dira eta finantzatzen goitik kultur erakunde eta obra handiak. Euskarari dagokionez, ez da inola ere bideragarria horrelako politika, baina bere eragina eduki ohi du alor horretan ere. Politika horren arabera, kulturako aurrekontuetako parte nagusi-nagusiaren kultur eta hizkuntza erakunde ofizialetara edo administrazio publikoak sorturikotara joan ohi dira, eta gehienbat horien bidez bestetara.

Kulturaren ikuspegi konkurrentziala nabarmentzen da delako kultur politika «liberalen». Lehiaketak eta oposizioak ugari, zabaldu eta ia edonon agertzeko beharrezko bihurtu ohi ditu kultur politika liberalak. Norgehiagok gertatzen da orduan kultur produktioa. Administrazio publikoaren diru-eta bestelako laguntzak —erakundeek, taldeek nahiz lagunbanakoei— «kulturazko produktibitate eta konkurrentzialtasunaren» erizpidearen gain ematen dira. Esango genuke, esan, euskara eta euskal kultura nekez ipin daitezkeela merkaturaren legepean, baina badirudi hemengo administrazio publikoen politika bide horretatik doala sarritan. Eta jokabide berbera zabaldu da bestelako erakunde pribatutara ere: Lehiaketak dira nagusi.

Herriaren ikuspegi bat, kultura elitistarena, omenaldien eta

sariketen politikan nabarmentzen da, baita kulturako jende «kantsakratuak» bereziki babestean. Administrazio publikoaren aldetik, ordea, sarritan kontzeptu hori kulturaren kontzeptu populista edo herrikoiarekin lotzen da; eta kulturako aurrekontuaren parterik handienetakoa eliteak egin duena herriari erakusteko eta haren zabalkundea egiteko ematen da.

Azkenik, kulturaren ikuspegi eta politika herritarra daude —ez herrikoiak—, herri osoa kulturagintzara bultzatzen duena eta herriaren eraturiko kultur talde eta erakunde ezberdinak bultzatzen eta laguntzen dituen. Diruzko eta bestelako laguntzak horietara zuzentzen ditu orduan administrazio publikoak. Politika herritar horri deritzat egokiena —funtsean egoki bakarra—, euskararen normalkuntzarako politika egokiaren marko gisa.

Lehenago esan dira mahainguru honetan hainbat gauza, erakunde herritarren, horien koordinaziotik sorturiko plataformaren, eta administrazio publikoaren arteko harreman dialektikoari buruz, bereziki euskararen normalkuntzarako plangintzari begira. Herriaren autoeraketatik sortu behar du plataforma horrek, administrazio publikoek erantzukizun behinena dute euskararen plangintzari buruz; baina inola ere ez erakunde herritarrek baztertzeko eta ordezkatzeko, horiek laguntzeko, indartzeko eta bultzatzeko, eta horien hutsuneak betetzeko baizik. Bestalde, harreman dialektiko horretan etengabe eutsi behar diete herri-erakundeek beren autonomiari eta jarrera kritikoiari. Herri-plataformak ez dauka, berez, alternatiba globalik kontrajarri beharrik administrazioaren normalkuntz plangintzari, hasieratik eta etengabe harreman dialektiko horiei leial izan bazaizkie alde bata eta bestea.

Baina honetaz ez gara luzatuko.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

